



Josu Etxaniz

## Gazi gozoak

**H**orrelako sentazioak azalera-tzen zaizkit lerro hauek idazterakoan.

Pozik, barrenetik ezagutu dudan proiektu bat aurrera doalako, Drogeten Iturriak tantak isuritzen jarraitzen dituelako. Goibel, berau aurrera eramateko izan dugun erreferentzia nagusienetako bat, Euskaldunon Egunkaria, itxi dutelako.

Itzaropentsu, Estibalitz Gonzalezek "ia kapazak garen San Martin ostien 0 zenbakixe ateratzeko, eta gero ikusiko dogu" (gogo asko eta baliabide oso gutxi geneukan orduan), gaur arte aldizkaria txintoxintxo kalean izan delako -10 urte luzetan!!- eta gaur egungo etorkizuna argiagoa ikusten zaiolako. Ezezkor, dena nahasten den herri honetan euskal komunikabideek beti susmagarri izaten jarraituko dutelako.

Harro, 100. zenbaki honetara heltzeko lagundu dudan apurratik, euskarazko komunikazioan egindako lanagatik. Amorraturik, beste batzuek euskal egunkari bakarria kaleratzeagatik dominak jaso beharrean kolpeak eta irainak jasan behar izan dituztelako.

ZORIONAK  
DROGETENITTURRI!  
EGUNKARIA AURRERA!  
BAI EUSKARARI!

# Erredakzio taldea: 100 ale, 200dik gora idazle

## ERREDAKZIO TALDEA:

AEK, Agurtza Zubero, Ainara Riveras, Ainhoa Delgado, Aitzol Uriarte, Alain Domingez, Alazne Aiestaran, Alazne Astarloa, Albaro Aja, Amagoia Zabala, Amaia Arriaga, Amaia Txurruka, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Ana Urkijo, Anabel Sanz, Anaitasuna Ikastolako: Maite, Ibon, Naroa, Nekane, Ana, Esther, Eli, Naiara, Eneko, Bixente, Iñaki eta Jokin, Anaitasunako 6. mailako Itsaso, Ekhi eta Garazi, Anaitasunako DBH ko 1. eta 2. mailako ikasleak, Anaitasunako Libe, Beñat, Julene, Matxalen, Nerea, Iratxe, Ohiane, Ariane eta Onintza, Andere Astigarraga, Andoni Doce, Arantza Cañamares, Arantza Gorritxategi, Arkaitz Ugartetxea, Arkaitz Urreta, Artarrai Mendi Taldea, Asier Azagirre, Asier Ibaibarriaga, Beatriz Narbaiza, Begoña Aginaga, Begoña Fernandez, Beñat Mallabia, Bertso Eskolako ikasleak, Carmen Barrio, David Pachon, Dorleta Vidal, Euskal Herrian Euskaraz, Elena Leonardo, Eli Txurruka, Elias Uriarte, Emakumeen Asanblada, Emakumearen Kontseilua, Emakumeen Sustapenerako Elkartea, Eneritz Aranburu, Ermuko Eliza, Ermuko Emakume Gazteen Taldea, Eskolabarriko ikasleak, Esther Etxaniz, Estibalitz González, Estibalitz Arrizabalaga, Fernando Aranberri, Fernando Arregi, Fernando Arregi, Gaizka Areitioaurtena, Gazte Naste, Gorabide, Gorpki, Graffiteroak, Ibone Medina, Idoia Astarloa, Idoia Carracedo, Ignacio

Perez, Ikasle Elkartea, Iker Sainz, Ikerne Arzuaga, Iñaki Agirregomezkorta, Iñaki Arregi, Iñaki Delgado, Iñaki Moreno, Iñaki Osoro, Iñaki Sanchez, Iñigo Erauskin, Josu Etxaniz, Irene Txurruka, Irune Aranberria, J.L. Gonzalez, J.M. "Bruce", Jabi Muñoz, Jabi Oñeka, Jabier Vidal, Jon Cano, Jon Unanue, Jose Luis Gimeno, Jose Luis Gorritxategi, Jose Mari Arnal, Josean Pernudo, Josu Araiztegi, Juanita Ibaibarriaga, Juanjo de Miguel, Juanjo Eizagirre, Juanmi Bravo, Juantxo Diez, Justo Azagirre, Kakitzat Taldea, Kaltxango AEKko Ikasle Elkartea, Kaltxangoko 7. urratseko ikasleak, Karmen Biain, Kattagorri, Kepa Izagirre, Koldo Aranberria, Komite Internazionalistak, La Verdad Elkartea, Lanbide Hastapenerako Zentrua, Laura Martinez, Leire



Sahagun, Lola Telleria, Luis Mari Malaxetxeberria, Maialen Gallastegi, Mallabiko Eskolako ikasleak, Mallabiko Learreta, Manolo Moreno, Mari Carmen Allende, Mari Feli Mancisidor, Maria Isabel Garitagoitia, Maria Teresa Zendoia, Marijo, Marina Zendoia, Marines Txurruka, Markina Herri Eskolako Aner, Mikel, Josu eta 5., 6., 7., eta 8. mailako ikasleak, Migel Aguiar, Mikel Yarza, Mikologiaren Lagunak, Mireia Arginzoniz, Miren Edurne Elejondo, Montse Gonzalez "Axular", Nagore Aranburu, Nerea Garrido, hobekuntza taldea eta 6. urratseko ikasleak, Nerea Izarra, Nestor Berriotxoa, Oihane Mallagarai, Olatz Areitioaurtena, Ongarai ikastetxeko ikasleak eta Eskola, Oskar Aranda, Pagorbe elkartea, Pello Mugarza, Ramon

Carrasco, Raul Diez, Riki Gonzalez, Rober Cano, Rodolfo Ujena, Rosa Bañuelos, Sallabente eskolako: Lorena, Javier, Agustin, Ivan, Oscar, Gorka, Eva eta Ana, San Pelaioiko ikasleak, Santiago Apostol Ikastetxeko ikasleak, Senideak, Sixto Iturriagaitia, Sonia Rodriguez, Teodoro Zuazuako ikasleak, Tomas Trifol, Torreta KT, Txisko Fernandez, Txus Caminos, Udal Barnetegiko ikasleak, Udal Euskaltegia, Udal Euskaltegiko 6. eta 9. urratsetako barnetegizaleak, Zentru Kulturalako 6. mailako ikasleak, Zorion Zamakola.

**ARGAZKIAK:** Alazne Aiestaran, Edurne Egialde, Ignacio Perez, Jesus Rodriguez, Ostarku Taldea, Raul Bogajo, Santos Vega.

**PUBLIZITATEA:** Ainhoa Delgado, Alazne Aiestaran, Andere Astigarraga, Eli Txurruka.

**MARRAZKIAK:** Andoni Baraona, A. Fernandez (Fox), Gerardo Lopez, Iñaki Aceña, Marcos Gimeno

**KOMIKIAK:** Asier Mitxelena

**MAKETATZAILEAK / DISEINUA:** Ainhoa Delgado, Eli Txurruka, Josu Etxaniz, Aitzol Uriarte, Koldo Mitxelena Zumaran

**BANATZAILEAK:** Ainara Riveras, Alazne Astarloa, Asier Mallabiabarrena, Jon Ander Lerin, Manuel Moreno, Mirari Mallabiabarrena, Nerea Gimeno, DBT, Sorne Lerin.

**EUSKARA ARDURADUNAK:** Fernando Aranberri, Mikel Yarza.



Estibalitz González

## Etorri eta hamen geratu

**G**ure umiak dana falta eban: berandako ez genduan etxerik, ez dirurik ezta munduratzeko bihar zitxuan tramankulu xinplienak. Argi euan prekarietatiaren semia izango zala berbaz jantziko genduan Drogetenituri txikixa. Urritxasunari aurre eitzeko botika bakarra: ilusiñua. Burdikada bat jiratu genduan berantzako.

Gogotuta munduratu zan, zesarea eitzeko premiña barik, kostata baiña pozarren. Txiki-txaka ikusi genduan hazten eta indartzen eta tratatzen... atzera eta aurrera pausak emoten ikasteko. Koskondu jakun eta entzute haundiko paperezko pertsonaia bihurtu zan. Honek urte luziotan 221 lagun arduratu dia letrazko bere jantzia josten 194 dendari, tabernari eta erakundek emondako hari preziatuari esker.

Sufridu eta amorratu eragin badosku, makiñatxo satisfakziño eta momentu gozo be bizi izandakuak gara haren kontura. Badaka baiña konpondu eziñeko akats bat: kuxkuxero eta autubatzaile negargarria dala. Dana jakin bihar, danaz jabetu bihar, iñon saltetan muturra sartuta beti... markia da ba! Eta hau gitxi balitz entzundako horrek danon barri lau haizetara zabaltzeko amorriziñua daka jaixokeratik; berandutxu baiña aldatzeko.

"100 ale" esateeran "100 urte" etortzen jaku sarritan ahora. Erakutsi dauan heldutasun maillagaitxik ete da?

Luzaruan euki deizula zeresana Drogetenituri!